



# IKASGELATIK MEDIALABERA: ESKOLEKIN PROIEKTUAK

**DEIALDIA  
2020/2021**

**ESKOLA // HEZKUNTZA // ESPERIMENTAZIOA // EZAGUTZA // LAN-TALDEA //  
HARREMANAK // AHALDUNTZEA //**

## AURKEZPENA

Ikasleek ikasgai bat modu berri eta desberdin batean ikastea nahi duzue? Eskola proiektu baterako ideia daukazue baina ez duzue baliabide egoki edo ezagutza tekniko zehatzik? Praktika eta esperientziaz ohiko prozesu batean txertatu nahiko zenukete? Klasetik atera eta espazio inspiragarri batean lan egin nahi duzue Medialabeko lan-taldearekin batera?

Deialdi honekin eskola esparrutik atera eta Tabakalerako Medialaben proiektu bat elkarrekin gauzatzea bilatzen dugu. Zerbitzu desberdin bat deskubritu eta eskaintzen dituen aukera guztiak erabiltzeko esperientzia.

Irakasleen eta Medialabeko lan taldearen artean proiektua diseinatuko genuke, gure lan-esparru espezializatuekin uztartuz: arte eta pentsamendu garaikidea. Esparru zehatzak honakoak dira: pentsamendu kritikoa, teknologia (elektronika, errobotika, 3D inpresioa, animazioa eta bideojokoak), ikus-entzunezkoa (argazkilaritza, bideo eta zinea), soinua, ehungintza, autoedizio eta arte plastikoak.

## NORI ZUZENDUA?

Deialdia HH, LH, BH eta **Batxilergo**ko eskolei zuzendua dago.

**Bi modalitate** daude: lau proiektuetatik bi Donostialdeko eskolentzat erreserbatuko dira eta beste biak Euskal Autonomia Erkidegoko beste eskolentzako izango dira.

2020/2021 ikasturterako deialdi honetan **lau eskola proiektu** onartuko dira **gehienez**.

Eskola bakoitzak proiektu bat baino gehiago aurkeztu ahal izango du baina hautatua bakarra izango da.

## NOLA GAUZATUKO DA?

Proiektuak **3 fase** izango ditu:



- Ko-diseinua lantaldearen eskutik: hasieratik ikastetxeko irakasleek eta Medialabeko teknikariek osatutako lantalde bat sortuko da proiektua diseinatu eta jarraipena egiteko, guztien artean, ardurak banatuta. Medialaba eta eskaintzen dituen aukera guztiak ezagutuko dira, proiektuan txertatuak izan daitezken neurtzeko.
- Garapena: lehen urratsean definitu eta adostutako dinamikak eta saioak aurrera eramango dira. Prozesua dokumentatuko da. Guztia, Tabakalera Medialaben gauzatuko da.
- Ebaluazioa: prozesuan zehar sortutako lanak eta emaitzak modu kualitatiboan baloratuko dira. Ebaluazioa elkarrekin egingo da, eskola eta Medialabeko taldearen artean.
- Saioren bat eskolan gauzatu daiteken aztertuko da.

## NOIZ?

Deialdia zabalik izango da urriaren 5etik urriaren 23ra.

Ebazpena 2020ko urriaren 30ean argitaratuko da.

Hautatutako proiektua 2020-2021 ikasturtean zehar garatuko da eta data zehatzak ikastetxea eta Medialaben artean adostuko dira.

## HAUTAKETA IRIZPIDEAK

Hautaketa prozesuan deialdi oinarriekin eta Tabakalera Medialabeko lan ildoekin bat egiten duten proiektuak baloratuko dira.

Proiektuak egiten dituen ekarpenak baloratuko dira.

Proiektuaren bideragarritasunari eta ideien sendotasunari garrantzia emango zaio.

Aurkeztutako proiektuen arabera, Tabakalera deialdia hutsik uztea erabaki ahal izango du.

Epaimahaia 3 lagunek osatuko dute: Medialabeko arduraduna, Medialabeko zerbitzuen koordinatzailea eta Hezkuntza arloko koordinatzailea.

Proiektu-idea aurkezteko [www.tabakalera.eus](http://www.tabakalera.eus) orrialdeko [formularioa](#) bete behar da. Sortu daitezkeen zalantzak ala galderak bideratzeko idatzi [medialab@tabakalera.eus](mailto:medialab@tabakalera.eus) helbidera ala deitu 943 475 050 telefono zenbakira.

\*Covid19 pandemiaren inguruan dugun ziurgabetasuna dela eta, eta ez dakigunez taldeak beren egoitzetatik atera ahal izango diren Tabakalera etortzeko, lantegiak ohiko espazioetatik kanpo egitea planteatzen da, eskola-egoitzetan, birtualki edo

**TABAKALERA**



egoki ikusten diren leku eta moduetan, betiere beharrezko osasun-neurriak bermatuz. 2020/21 ikasturtean, materialak eta lan-saioak egokituko dira, taldeei distantzian laguntzeko.

**KULTURA  
GARAIKIDEAREN  
NAZIOARTEKO  
ZENTROA**  
—

**CENTRO  
INTERNACIONAL  
DE CULTURA  
CONTEMPORÁNEA**  
—

**INTERNATIONAL  
CENTRE FOR  
CONTEMPORARY  
CULTURE**  
—

**tabakalera.eu**  
—